

## ARO ALDAKETA

Asko gira, guraso ala aita-amatxi, "gure" haur eta gazteeri gure baloreak eta sinesmenak transmititu nahian zailtasunak eta batzuetan etsipenak bizi ditugunak. Ez dakigu zer egin eta nola jokatu belaunaldien arteko lokarria sortzeko eta indartzeko. Batzutan iduritzen zaigu mundu desberdinetan bizi girela, edo, gutienez, ez dugula "hizkuntza" bera erabiltzen.

Gai huni buruz artikulu arras interesgarria idatzi du Josean Manzanos\* erakasle eta hezitzaileak azkenik argitaratu den HEMEN aldizkarian (41. zenbakia). Neretzat, aurkikuntza bat izan da, argigarria. Zuen arteko zonbaitentzat ere hala izan daitekela pentsatuz, huna erakaspen nagusienak.

Haste hastetik, argi izan behar dugu azken hogoi urte hauetan gertatu direla munduan aintzineko bi mendeetan baino aldaketa gehiago. Ondorioz, ohartu eta onartu behar dugu iragan mendearen seme-alabak girela, eta beraz *dekonstrukzio-prozesu* baten premian gaudela, erran nahi baita ikasi ditugunak desikasi behar ditugula, eta hau umiltasunez eta ere harrimenez. Bestelako gizateria bat agertzen hasia da, eta hunen ezaugarri nagusia da *sendimenduen espresioa*. Erranaldi ezaguna errepikatuz, bizi duguna "ez da aldaketa aro bat, baizik eta aro aldaketa bat."

Nolakoak dira, bada, gure haur eta gazteak? Huna, J. Manzanos-en arabera, ezaugarri nagusiak:

\* ***belaunaldi autonomoak***: harrigarria da gaurko haurrek molde indibidualean aurkikuntzak egiteko duten gaitasun goiztiarra. Perzepzio pertsonaletik abiatuak eraikitzen da pentsamendua, kanpotiko erreferente absolutuen beharrik gabe. Hau deitzen da "pentsamendu autokonstruktiboa".

\* ***belaunaldi ultra-zaluak***: abiadura bizi-bizian bizi gira, eta *dena da behin-behineko eta aldakor*, gelditasunak eta immanentziak ez dute gehiago tokirik.

\* ***belaunaldi esperientzialak***: gaurko gazteen artean badago jaidura genetiko bat esperientziaren irazkitik ("filtro"tik) pasatzen ez dena baztertzeko, indar-egitea saihestuz eta aurkikuntza fagoratu.

\* ***belaunaldi elgarlotuak eta unibertsalak***: hatz-kolpe batez gure antipodetan dagoenarekin harremanetan sar daiteke. Gainera, gauza guziak elgarrekin uztarturik, loturik eta erlazionaturik daude. Eta hunek errealitate berri hau posible egiten du: *oro da zati, deus ez da oro*.

\* ***belaunaldi bisualak***: hitza (eta diskurtsoa) erlatibizatu da komunikatzeko bide gisa, irudiak du eremu guzia okupatzen.

\* ***belaunaldi liberatuak*** (bainan ez libreak) *eta "likidoak"*: hetsidura guziak desagertu dira (baita erlijionearen ere). "Pentsamendu liberatua" da ingurune estatiko batean ez dagoena, eta "belaunaldi likidoak", berriz, beren pentsamendua leku, dogma edo garai konkretu batean errotu ez dutenak dira; gaur egun, "ixurian ez doana ez da". Ixurian joaiteak erran nahi du bidea niholako trabarik gabe zeharkatzea.

Hau guzia argiturik, desafioa edo erronka da: nola eraman eszenatoki berri hortara gaurko gazteen Heziketa (edo Formakuntza) Izpirituala? Nola heldu gizakiaren *dimentsiorik barnekoiena* deskubritzera eta heztera?

Argi dagoena da gure orai arteko moldeak eta bideak behar ditugula erro-errotik aldatu.

J.Manzanos-ek dio: *"Izpiritualtasunean hezteko, gure haur eta gazteei erakatsi behar diotegu: bakotxa den eta bakotxak bizi duen oro gure baitako barne-esperientziak erregulatzen duela."* Eta Barnekotasuna hezteko mamizat ikusten ditu bost oinarri hauek: *sormenezko pentsamendua, espresio bide sinbolikoa, kontzientzia korporala, harmonizazio emozionala eta garapen izpirituala*. Helburua da, azkenean, gazteek beren existentziaren zentzua deskubritzea eta galde huni erantzutea: "Eta ni, zertarako sortu naiz?"

Bidaia hortan, gure haur eta gazteen bidelagun izan behar dugu, axola handiz entzun behar ditugu. Gure laguntza behar dute beren gorputzek sendimenduak eta emozioak nola bizi dituzten ulertzeko, beren sendimendu barnekoienak identifikatzen eta adierazten ikasteko, gizaki oren baitan dagoen jakintasun funtsezkoa deskubritzeko beren baitan. Barne-esperientziarekin bat egitean, *liberazio-prozesu* bat martxan jartzen da, gure buruarekin erlazionatzen ikasten dugu eta gure erdigunearekin komunikatzen. Hau abentura bat da.

*"Izpiritualtasunaren pedagogia"* berri hortan, esploratzaile gira, ez laborari. Barne-esperientzia ikertuz eta landuz, haurrek ikasten dute molderik barnekoienean eta errealenean zer

diren eta nor diren. Gisa hortan deskubritzen dute beren dimentsio izpirituala, eta ikasten dute enpatiaz eta elkartasunez bizitzen.

Gauzak praktikara ekarriz (hau nere ohar pertsonala da), hunek akulatzen gaitu ere, adibidez, gure katekesi eta liturgia moldeak errotik ber-ikustera eta berritzera. Bainan hau... beste aldi baterako utziko dugu, ez...

*\*Gasteizen sortua, ezkondua, lau seme-alaba ditu. Erlijioa, Barnekotasuna eta Matematika erakaslea. Quitoko (Ekuador) auzo pobreetan lanean arizana. "Ixileku" guneen sortzailea. "Zugan" (En ti) proiektuaren sustatzailea.*

***Peio Ospital  
(2014-06-23)***